

ELA, LAB, CCOO, SATSE, ESK eta STEILAS sindikatuok greba eta mobilizazioak bultzatzen jarraituko dugu, Gobernuak eta euskal alderdi politikoek enplegu publikoa kontsolidatu eta sortzeko beharrezko pausuak eman eta zerbitzu publikoak indartu arte

ELA, LAB, CCOO, SATSE, ESK eta STEILAS sindikatuok EAEko sektore publiko osorako deitutako mobilizazioei eta apirilak 22ko grebari buruzko oso balorazio positiboa egiten dugu.

Milaka langile publikori greba-eskubidea ukatzen zieten gutxieneko zerbitzuak ezarri eta pertsonen mugikortasuna asko baldintzatzen zuen pandemia egon arren, 18.000 langilek baino gehiagok parte hartu zuten EAEko hiru hiriburuetan deitutako manifestazioetan.

Ez dugu balorazio bera egiten Eusko Jaurlaritzak, erakundeek eta alderdi politikoek sindikatuek eta mobilizazioetan aktiboki parte hartu zuten euskal sektore publikoko milaka langilek egindako eskaerei emandako erantzunari buruz.

Eusko Jaurlaritzak, propaganda-adierazpenak alde batera utzita, **euskal sektore publikoko 60.000 langile baino gehiago kontsolidatzeko benetako urratsik eman gabe jarraitzen du**, eta, Europako behin-behinekotasun ranking altuenaren lehen tokian dagoen bitartean, pribatizazioaren aldeko apustuarekin jarraitzen du.

Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrean, Kidegoen eta Eskalen Lege Proiektuan barneratutako proposamen baten alde egiten jarraitzen du. Proposamen hori ez da nahikoa, eta behin-behinekotasunaren gaitza pairatzen duten langile gehienak bere aplikaziotik at uzten ditu. Ez Mahai Orokorrean, ez eta mahai sektorialetan ere, ez du enplegu publikoa kontsolidatzeko bidean aurrera egiteko borondaterik agertzen.

Gainerako erakundeei eta euskal alderdi politikoei dagokienez, egun ez dugu benetako proposamenik ikusten hemen, gure herrian, zein zerbitzu publiko nahi eta behar ditugun erabakitzeko, eta euskal enplegu publikoa kontsolidatzeko finkatzeko.

Egoera horren aurrean, **grebara deitu dugun sindikatuok bilerak deituko ditugu berehala Eusko Jaurlaritzarekin, Eudelekin eta euskal alderdi politikoekin; haien esku dagoelako, eta ez beste batzuetan**, zerbitzu publikoak indartzea eta behin-behinekotasunaren gaitza pairatzen duten 60.000 langile baino gehiagori enplegua kontsolidatzea.

Horrekin batera, hemen gauden sindikatuok helburu hori lortzeko beharrezkoak diren mobilizazioak eta greba egunak bultzatzen jarraituko dugu. Hori dela eta, datozen asteetarako honako mobilizazio hauek adostu ditugu.

- **Maiatzaren 25a:** Manifestazioa-mobilizazioa Gasteizen.
- **Ekainaren 1a:** kontzentrazioak EAEko sektore publiko osoko lantokietan.
- **Ekainaren 5a:** manifestazioak EAEko hiru hiriburuetan: Donostian, Bilbon eta Gasteizen.

Bilbon, 2021eko maiatzaren 14an

ELA-LAB-CCOO-SATSE-STEILAS-ESK